

Antonio Jauregi Maiza

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea

Biografia



Antonio Bedaioko
Gurbilaaundi baserrian jaioa da. Beti izan du gogoetarako grina, eta bere bizipenei buruzko erreflexio asko eginga da, bere kontakizunek agerian uzten dutenez. Baserriko gerra ondoreneko giroa kontatu digu, eskola kontuak, gaixotasunak, estraperloa, janaria, jolasak, sorgin kontuak, neska kontuak, soldadutza...

Zintak

TOL-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-11-20
- **Iraupena:** 157 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Zerua eta infernuari buruzko gogoeta

- **Erref:** TOL-003/001
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

<p>Zeruari eta infernuari buruzko gogoeta egiten du.</p>

Transkripzioa

- Zerua ez izatea pena emango litake. Infernua ez izatea, bale. Infernuri ez da, gaiñea. Nik hoi hogeita bost urtetako erabaki nun. Erabaki, e! Nik esan nun: "Hemen esaten diguen /esateiuen/ bezela eternidadea infernue, [...] baiño sue gogorragoa dala, ta gero eternidadea zerue. Mundu hontan gizona gaiztonetik onenea ez zeok diferentzi hoi, eternidadeakin konparatzeko. Ta hori ez dek egie". Nik hogeita bost urtetako hola jan nun hoi. Hoi ez dek posible. Ta oaindik ez die hiru bat urte apaiz bati, hola, goi xamarreko arzipreste bati, esan nion "Aizu, hola ta hola, ta hau ta hau ta hau, ta hau posible al da?", ta "Ez, Antonio, ez, hi lasai. Jangoikoa gu baiño onagoa dek ta gu denok salbatuko gaittuk" esan ziten. Oain, nik Jangoikoa ez dakit gu baiño onagoa dan. Nik pentsatzen det /pentsatset/ ni baiño onagoa baldin bada, nahikoa dittula infernun bost egun gaiztonak´e. "Earrak pasa dittuk; etorri hai, etorri hai honea". Beste gauze: Jangoikoak iñak denok. Ordun, zein da kulpantea? Bea, bea.

- Hala izango da.

- Nik hola ikusten dittut! Nik hola ikusten det /ikustet/nik.

2. Umeak nola hezi? Lehengo eta oraingo metodoa

- **Erref:** TOL-003/005
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:20:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskolarako gogorik ez zuen izaten, oso urduria baitzen; ezin izaten zuen kontzentratu. Katona erabiltzen zuten ikasteko; orduko irakasleari buruz hitz egiten du. Lehen umeak jo egin behar zirela uste zen; gaur egungo umeen heziketari buruzko iritzia ematen du. Behin aitak itulan egiteko eskatu zionean izandako pasartea kontatzen du eta horren harira izandako gogoeta.</p>

Transkripzioa

Eskolako ez nun gogoik. Batez. Gogoik batez. Eskolai nion bildurre. Nitzen oso-oso nerbiosoa. Eta ez neuken baseik. Ez neuken amaik. Ez neuken erakusten dunik. Ez neuken... ideaik ez neuken, eta neoni ez nitzen gai, alegie, eskola ikasteko ze formazio jarri behar non. Neri esaten baziten: "liburu hau [letu] zazu", burue bajatuko nun, ta nik letrai, bai, baiño... eukiko nittun zazpi milla pentsamentu ta nik ze letzen ai nitzen bate ez nekin. Letu itten non. Ikesi non nik. Nik ikesi non dotriñe, ikasi non maunuskrito ta ikasi nittun [hoik]. Baiño... Katona're bai, zeak esan zuna, Juanek esan zuna /esantzuna/. Aurrena, kantona, Gabinakin. Aittu giñen esaten harek jotzen zula-ta, baiño ez gendun /ezkendun/ eman... meritue bazula esan behar gendun. Hori iristen zaneaiño, harrek Bedaion lan asko in zun, peztik kobratu bare, e! Bakarren batek ogi-kozkorren bat eo [...], ta [...] pixka bat'e bai. Nik'e eaman izan nun [...] pixka bat. Hantxe egoten zan hure. Ze[jo] behar zun harek? Harrek asko in zun. Harrek Bedaioko umei dotriña eakutsi zien. Ta bee izena itten, ta letzen'e bai eakutsi zien harek. Hori asko zan garai hartako! Ta iñok eskerrik ez zion ematen hari. Zartakok ematen [eztakit ze itten] zittula. Jakiña, orduan hala baitzan. Lehenaotik zetorren umea jotzeko ta... jo in behar zan edukazioa emateko. Ta gaur'e pixkat gogortxio ingo balitzaio hobe. Jo ez de esaten, baiño... Umea jotzea ez da ona, e. Eta umea jo behar baldin bada, arrazoia oso segurutik behar du, e! Ez baldin badau seguru-segurutik ez pentsatu gero ume harrek asko dakila, e! Nik esango dizut kasoa. Ni tokatu nitzen behin itxulen ibili beharren, gogoan kontra, ta desarrazoian. Nik arrazoi ta ez banu bezela tratatu eta nik itzulen ibili behar izan nun. Nik eta nere arrebak gendun tratua iñe, nik, gosaldu arte —goizian egunsentittik juten nitzen sorora idik-eta lotuta, ta—, ni ibiliko nitzela gosaldu arte itzulen. Eta nere arreba —hor zan herrin lehengon— hure ibiliko zala gosaldu ta gero, handik atzera, [hamabiyak] bitarten. Tratua in gendun. Hure gosariyakin jun zan, ta ez zun gutxi in, gosaltzeko gogoa inda neon ni're ta. Jan gendun bapo ta nere arten "Oain libre nauk. Ño! Oain jolasera juteko modun nauk" eta ni gustora. Ta nun esaten dio /esateiyo/: "Aitte, nik itzuleako... ni ez naiz itzuleako... ez dauket nik itzuleako gogorik", "Ze ez daukezula gogorik? Zuk itzulan ibiliko zeala esan dezu! Ni gosaldu arte ibiltzeko, ta zu geo ibiliko zeala ta. Oain ez daukezula gogorik? Ezta nik'e! Ni ez naiz ibiliko". Aitte zanak, ez dakit nik, ni motille, hure nexka, ni baiño zaharrao zan, baiño ni gogorrao jotzen niñun eo zer eo. Deskuidatu da ni itzulen jartzeko esatera aitte, ta aittek behin esan ezkerro ein ein behar, ba, [...] soro aldetik, [...]. Hala, itzulen jarriazi nau, heldu [beso...] eamanda. Jarri nau itzulen ta, pentsa zazu nik orduako ze letxea neuken, txapelak-eta burutik-ta tira harrika ta anda la letxe goitik behera abittu nitzaion! Zenbat urte eukiko nittun nik? Zortzi urte eo, ez dakit, ba, ze eukiko nittun... hamar? Ez dakit. Zortzin bat urte. Ta, jakiñe, saltatu da ta harrapatu nau ta ipurdie bero-bero-bero ein ta egoarte guziko hotzak kendu. Miñe ez, e? Erresumiñe nik geo sentitzen nun. Miñik batez! Ta nik gaur arte. Nik aitte zanai esan izandu nion, e. Ta arrebai oaindi ez da denbora asko esan diotela: "Nik oaindi hartu dittuten ipurdiko haundienak honen paltaz!". Ordun, umeakin kontu haundia behar da, nola agindu behar zaion,

gurasok, gaiñantzen umeak gogoan eukitzen du. Ta gero txarra izaten da zea, [kontrastea] bueltan. Oain, nik aitte maitte nun, ta aittek´e bai ni, ta horrengatik zea, baiño... beti behintzat kontu pixkat eukitzea gauze inportantea dala, umea ez dala edozein moduz aurren hartzekoa desarrazoian. Ez baita ontzen! Onduko balitz, zerbaitte eitea badau; umea gaiztatu ein leike desarrazoian edozein moduz tratatu ezkeo. Hoi da kasoa, azken baten.

3. Eskolako zigorrak etxean ez zituen kontatzen

- **Erref:** TOL-003/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:20:14. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Eskolan jotzen zutenean, etxean ez zuen kontatzen Antoniok; izan ere, esatekotan, bere errua zein izan zen ere esan beharko zuen.</p>

Transkripzioa

- Bai, eskolan ni jo izandu niñun Gabinak. Ni jo izandu niñun. Nik ez nun etxen esan´e eitten. Nik bate ez nun esaten etxen. Jo bai. Ba, kulpek, askotan, kulpek izan´e eitten dittuzu ta... Esaten dizu ixilik egoteko, ta kontutan igual ai zea beste batekin ta. O bultzaka o zean igual; egoteko geldi, ta ez bazare, zeorri zea kulpante. Ordun, kulpantea baldin bazea, ba, harek zartako batzuk ematea o zeozer jotzea behintzat, [alegia] neri ez [zitzaite] iruditzen hola... desarrazoizko gauze zanik. Etxen okerragok igual izaten zien. Ta, ordun, nik etxen ez nun esan´e eitten. Nik etxen hure esateko ze ein nun esan beharra neuken, ta. Neri egie egikin esatea gustatzen baitzat. Ez zea, hau preparatu, ta hau hola utzi egi hau, ta “beste hau zetorrek, beste hau´re egie dek eta... baiño hau, beste egi hau, gordetzen baet, hori earki etorriko dek /etorrikok/”. Hori asko hitz eitten da, e? Hori asko eitten da. Hori txarra da. Egie esan behar du egi-egi, bestela bate ez esan.

- Ordun ixilik egon ber...

- Hori hola da. Ta, ordun, nik ez nien /enien/esaten. Ni ez naiz gogoratzen esanik. Hatzaparrak-eta hola jarrita bai, jota, ubelduta ta. Minbera izaten zan.

4. Osabaren egarriarekin zer egin?

- **Erref:** TOL-003/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:26:24. **Bukatu:** 00:29:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Osaba batek likidoak ezin zituen bota. Hari urik ez emateko gomendatzen

zuten medikuek, nahiz eta hark ura eskatu besterik ez zuen egiten. Azkenean ura eman zioten.

5. Argindarrik eta urik ez zenean etxean

- **Erref:** TOL-003/010
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:29:44. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Lehen ez zegoen argirik eta urik beraien etxean. Kinkean petrolioia sartzen zuten eta harekin moldatzen ziren. Lasto-argia ere erabiltzen zuten kanpoan argia izateko; argi ederra egiten zuen hark, su handia izaten baitzuen. Lehen ilargiaren argia aprobetxatzen zuten ahal zutenetan.

6. Estraperloan asko ibilitakoa

- **Erref:** TOL-003/011
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperloan asko ibilitakoa da Antonio. Zer bidetatik ibiltzen zen aipatzen du. Nafarroan garia ehotzea libre zen, baina Gipuzkoan ez.

7. Estraperloan abere sendoa behar

- **Erref:** TOL-003/013
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:34:57. **Bukatu:** 00:37:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Estraperloan asto koskor batekin ibiltzen zen. Abere sendoa eta indartsua behar izaten zuen, baina astoarekin konformatu behar izan zuen. Konformismoari buruzko gogoeta egiten du.</p>

8. Estraperloan zebilela mandoa etzan zenekoa

- **Erref:** TOL-003/014
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:37:01. **Bukatu:** 00:42:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin bi abererekin zetorrela Atalluko errostatik, mandoa etzan egin zen.

Laguntza eske joan zen orduan, baina bere kabuz moldatu behar izan zuen azkenean.

9. Estraperloan guardia zibilek harrapatu zutenekoa

- **Erref:** TOL-003/015
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:42:11. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Behin estraperloan zebilela, guardia zibilek harrapatu zituzten; azkenean, mikeleteen laguntzaz, tratua egin zuten guardia zibilekin eta diru truk pasatzen utzi zituzten.

10. Mikeleteen funtzioa eta guardia zibilekin egindako tratua

- **Erref:** TOL-003/016
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:44:44. **Bukatu:** 00:46:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Mikeleteek ez zuten irinaren kontra ezer egiten, alkoholaren kontra baizik.

Guardia zibilek behin harrapatu zituztenean, diru truk utzi zituzten pasatzen.

Zergatik utziko ote zituzten hausnartzen du Antoniok.

11. Gerraostea gogorra, baina beraien baserrian goserik ez

- **Erref:** TOL-003/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:49:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Umetan gerraostea bizi zuen, baina ez zuten goserik izan, baserrian izaten baitzuten janaria. Baserriko bizimodua gogorra zen.

12. Hitzaren balioa

- **Erref:** TOL-003/021
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:02:25. **Bukatu:** 01:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Lehen tratuak hitzez egiten ziren; hitza mantentzen ez bazen, faltsutzat hartzen zen pertsona hura eta inork ez zuen nahi izaten harekin traturik egin. Lehen auzolanean egin ohi zituzten lan ugari.

13. Auzolanetako janari berezia

- **Erref:** TOL-003/022
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:04:54. **Bukatu:** 01:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Auzolanean zer lan mota egiten zituzten aipatzen du. Normalean familiartekoen artean egiten zituzten auzolanak. Auzolanak egitean, janari berezia ateratzen zuten. Janari hari buruz hitz egiten du.

14. Janaria kontserbatzeko moduak

- **Erref:** TOL-003/023
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:07:54. **Bukatu:** 01:10:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehen janaria nola kontserbatzen zuten azaltzen du.

15. Labeko ogia egiteko prozesua

- **Erref:** TOL-003/025
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:11:48. **Bukatu:** 01:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Lehen baserri guztietan zegoen labea ogia egiteko. Labeko ogia nola egiten den azaltzen du Antoniok. Labeak nola funtzionatzen duen azaltzen du.

16. Altoketan jolasean

- **Erref:** TOL-003/028
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:20:39. **Bukatu:** 01:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Altoketan ibiltzen ziren jolasean umetan; nola jolasten zuten azaltzen du.

17. Kongregazioak zuen eragina

- **Erref:** TOL-003/031
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:24:49. **Bukatu:** 01:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Luistarren, Jesusen Bihotzaren eta San Frantziskoren kongregazioan egon izan da Antonio. Kongregazio haietan zer egiten zuten azaltzen du. Dantza lotua ezin zenean egin, baziren batzuk dantza lotua nork egin zuen salatzen aritzen zirenak. Jendeak beldurra izaten zuen kongregaziotik bidaliko zituztelakoan.

18. Lehengo musika-estiloak

- **Erref:** TOL-003/033
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:29:21. **Bukatu:** 01:31:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Lehengo musika-estiloak buruz hitz egiten du: fandangoa, trikitixa, soinu handia...

19. Neska-laguntzeko laguntza

- **Erref:** TOL-003/036
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:32:29. **Bukatu:** 01:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Herrian soinua izaten zen jai arratsaldetan eta hara joaten ziren. Iluntzean, neska-laguntzea izaten zen. Behin lagun batek laguntza eskatu zion neska-laguntzarako eta orduko komerkiak kontatzen ditu.

20. Mutikotako lanak

- **Erref:** TOL-003/038
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:36:44. **Bukatu:** 01:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

16 urte zituela, mailu-mutil joan zen. Han izaten zituen lanak eta zereginak aipatzen ditu. Belarra jaisteko, kablea erabiltzen zuten.

21. Mutil iharra baina bizia

- **Erref:** TOL-003/039
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:38:50. **Bukatu:** 01:41:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

2 urtez aritu zen Antonio mailu-mutil. Garai hartan oso iharra zen, baina bizitasun handikoa. Azkenean, beste leku batera joan zen lanera, baldintza hobeak ematen baitzizkioten han.

22. Etxeen egitura lehen

- **Erref:** TOL-003/041
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 01:49:12. **Bukatu:** 01:53:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Lehen etxeak egiteko egur asko erabiltzen zen. Egiturak nola eraikitzen ziren azaltzen du. Tabikeak zumitzez egin izan ditu Antoniok. Karea pareta zuritzeko erabiltzen zuten.

23. Fedea izan nahi eta ezin

- **Erref:** TOL-003/044
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:59:23. **Bukatu:** 02:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Antonioren ustez, ez dago ez zerurik ez infernurik. Gizakiaren funtsari buruzko gogoeta egiten du. Fedea izan nahi duen arren, ezin du lortu.

24. Apaizaren esanak ezin sinetsi

- **Erref:** TOL-003/046
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 02:01:48. **Bukatu:** 02:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Garai batean, apaizak infernuari buruz ematen zuen azalpena kontatzen du. Pulpitutik sermoia botatzen zuenean, batzuek negar egiten zuten; baina Antoniok ez du sinesten gogoeta asko eta sakonak egin ostean.

25. Soldaduska Ceutan

- **Erref:** TOL-003/049
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 02:15:37. **Bukatu:** 02:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Afrikan egin zuen soldaduska, Ceutan. Han jasotako kolpeari buruz hitz egiten du: medikuari dirua eman zion zauria sendatzeagatik eta itzuli egin zioten gerora.

26. Soldadutzan baimena lortzeko komeriak

- **Erref:** TOL-003/050
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 02:17:38. **Bukatu:** 02:21:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Ceutan egin zuen soldadutza eta gurdizain ibili zen sei hilabetez. Behin baimena lortu zuen eta beste mutil bati esan zion garaia baino lehenago; orduko komeriak kontatzen ditu.</p>

27. Aztiei zieten beldurra

- **Erref:** TOL-003/054
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 02:27:33. **Bukatu:** 02:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Aztiei beldurra zien lehen, eta gaztetan izandako anekdota kontatzen du.

Jauregi Maiza, Antonio | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com